




### SARBIDEAK




- Ingurune babestuek / Espacios Protegidos (Natura 2000 Sarea / Red Natura 2000)
- Tokiko parkea / Parque Local
- Atsedenekua / Área recreativa
- GR-38

Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

Zuñako Koadrila  
Cuadrilla de Zuñu

ANAF-PHM

**(112)**  
SOS DEIAK



**Aguraingo turismo bulegoa:**  
945 312 535

**Murgiako turismo bulegoa:**  
945 161 598

**Vitoria-Gasteizko turismo bulegoa:**  
945 161 598

# IBILBIDEAREN DESKRIBAPENA: GR 38 Etapa 4.B Legutio-Otxandio

1a 10 km dituen etapa honek arabar lurraldeko Legutioko hiribildua eta Bizkaiko lurralde historikoaren atarian kokaturiko Otxandioko hiribildua batuko ditu. Bidean errekastoak, ehun urtetik gorako pago lepatuen basoak eta Albinako urtegi ezezaguna izango dira protagonistak.



**km 0.- LEGUTIO.** Gaur egun San Roke parkea den hilerri zaharrak eskaintzen digun panoramika ezin ederragoaz gozatu ostean Legutio atzean utzi eta Albinako urtegirantz joko dugu. Ibilbidea urtegiara doan errepidetik doa hasieran baina laster hau alde batera utzi eta hilerria igoko den bidezidorretik jarraituko dugu. Erkametz, landaketa, pago eta altzifre artean egingo dugu hilerri eta urtegia arteko ibilbidea.

**3 km.- ALBINA URTEGIA.** Baso artean dagoen itsasoa balitz bezala azaltzen zaigu urtegiaren paraje paregabe hau. Urtegiaren ur azpian galtzen diren harlauza handi batzuk gogorarazten digute hemendik igarotzen zela Aramaioko bide zaharra. Baina guk urbazterretik jarraitu behar dugu, urtegiaren tarte bat inguratuz, harik eta errepidera hurbilduko gaituen bidezidorra hartu arte. Errepidea gurutzatu eta Mirugaineko igoerari ekingo diogu. Maldarik gabeko tarte baten ondoren ibilbideak behera egiten du apur batean, berriro ere gora egiteko, Tantaibakarreko tontorra eskuinean utziz. Mirugaineko gailurrerantz jarraitzen dugu, eta tontorretik gertu PR-BI 50arekin gurutzatuko gara. Mendiko ibilbide labur hau Otxandioko mugetatik doa, Basabisitta gogoratuz.

**7,2 km.- MIRUGAIN.** Alanbrezko itxidura batzuk zeharkatu eta ehun urtetik gorako pago motzen baso zabalean behera egingo dugu. Baso hauen enborretan

oraindik ikusi daitezke gerra zibileko metrailen aztarnak. Jaitziera luze baten ondoren ibilbidea baso artetik zabalgunek batera helduko da. Puntu honetan pista albo batera utzi eta eskumara joko dugu, Iñolako errekastoa zeharkatu eta bidexka batetik Gorrien bidea izenez ezagutzen den asfaltatutako bide batera heldu arte. Otxanditik nahiko gertu gaude jada. Bertara heltzeko Olazar pagadia eta izen bereko erreka zeharkatu beharko ditugu, azken hau horretarako egokitutako zubi batzuei esker. Paraje honetan PR-BI 52arekin egingo dugu topo eta honekin batera helduko gara Vitoria-Gasteizko errepide zaharrera, lehenik San Roke ermita ondoko hilerriaren atzeko pagadi zaharra zeharkatuz. Urbarrena kaletik sartuko gara hiribildu zaharrera, bidean Urkiola ibai gaineko zubia zeharkatuz. Etapa Plaza Nagusian bukatzen da. Bertan aurkituko ditugu Otxandiko eraikin garrantzitsuenetako batzuk: udaletxea, Santa Maria eliza, frontoia, Vulcano iturria, bolatokia,...

## MIDE



9,6 Km



223 m



2 h 30'

Gogortasuna



1

Severidad

Orientazioa



2

Orientación

Desplazamendua



2

Desplazamiento

Esfortua



2

Esfuerzo

MIDE ibilbideen gogortasun teknika zein fisiko baloratzeko erabiltzen den txangolarien arteko komunikazio sistema da.

MIDEn zailtasun desberdineko lau aspektu baloratzen dira (1etik 5erako puntuazioarekin, txikitik handira):



Ingurune naturalaren gogortasuna



Ibilbidean orientatzeko zailtasuna




Desplazamenduaren zailtasuna





Behar den ahalegin maila

## PROFILA





**BUKAERA**



**IBILTARIAREN DEKALOGOA**

- 1.- Ibilbidearen plangintza egin alde zurretik
- 2.- Ahal izanez gero, lagunekin joan
- 3.- Ibilbidearen berri eman ingurukoei
- 4.- Arropa egokia eraman
- 5.- Edari eta janari nahikoa eraman

- 6.- Ez ahaztu eguzkitako crema
- 7.- Landareak eta animaliak errespetatu
- 8.- Ez irten markatutako ibilbideetatik
- 9.- Ingurunea zaindu
- 112 10.- Larialdi-egoeran 112 telefonora deitu